

# noaua



**Txotx garaia da**

**Erraustegiaren  
kutsadurari buruzko  
datu berriak emango  
dituzte ostiral honetan  
Potxoenean**

**Igor Labaka Lizarazu,  
Hawaiiko Ironman-etik bueltan:  
“Txikitatik nuen ametsa bete dut”**





*FINKA ADMINISTRATZAILEA*

*AHOLKULARITZA ZERBITZUA*

*INMOBILIARIA*


*ASEGURUAK*

**943 573 693**

*Eusko Gudari 35, ORIO*

**noqua**

jarraitu gure sare sozialak



[www.noqua.eus](http://www.noqua.eus)

 **pikabea**

**ASEGURU ARTEKARITZA  
ETA GESTORIA ZERBITZUA**

**Telf: 943 37 11 18 Mugikorra: 672 23 83 01**   
**[pikabea@pikabeaaseguruak.com](mailto:pikabea@pikabeaaseguruak.com)**

Uzturre Plaza, 8 Lasarte-Oria J-0078EUS

## Albisteak iruditan

# Herritar hauek gogotsu hasi zuten urtea



Herri askotan errepikatzen den joera da. Urtea mendi-gain batean hastea. Usurbilen adibidez, asko dira Andatzara igotzeko ohitura dutenak. Argazkian dituzue urteberri-eguneko mendi buelta berritu zuten herritarrak. Gogotsu eta umoretsu ageri dira argazkian.

## Laburrean

### Matrikulazio kanpaina atzeratu dute

Ikasturte berrirako matrikulazio kanpaina atzeratu egingo da. Otsailaren 13tik 24ra eman ahalko da izena 2023-24 ikasturterako, HH, LH eta DBH zikloetan. Udalerri honetan, Udarregi ikastolan, baita Aginaga zein Zubietako eskoletan ere.

### 9 langabetu gehiago azaroan

208 langabetu zenbatu zituzten azaroan Usurbilen, urrian baino 9 gehiago. Gizonezkoen artean 80tik 85era igo da aipatu kopurua, emakumezkoen artean 119tik 123ra. Aldiz, gizonezkoak (111) baino emakumezko gehiago (126) kontratatu da oraingoan.

### Inauteri Festarako gaia, zuen esku

Otsailaren 18an ospatuko dugun Inauteri Festa egunean, zertaz moztortu nahi zenukete? Aurtengo edizioeko gaia zuen esku! Bideotatik proposa dezakezue moztortzeko gaia:

Emaila: [elkartea@noaua.eus](mailto:elkartea@noaua.eus)  
Whatsapp mezua: 688 807 336.

# noaua

Kultur Elkarte  
Bordaberi, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil  
943 360 321 ||| [elkartea@noaua.eus](mailto:elkartea@noaua.eus) ||| [www.noaua.eus](http://www.noaua.eus)  
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:**  
Idoia Torregarai.  
**Aldizkariko koordinatzailea:**  
Imanol Ubeda.  
**Idazkaria:** Alaitz Aizpurua.  
**Diseinua:** Erroitz S. L.

**Erredakzio kontseilua:**  
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

**Publizitatea:** Beatriz Alda,  
[publizitatea@noaua.eus](mailto:publizitatea@noaua.eus)

**Banaketa:** Iñaki Irazusta,  
Iban Maritxalar.  
**Tirada:** 2.930 ale.  
**Lege-Gordailua:** SS-668-96  
**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu  
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

**Harremanetarako:**  
[erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus)



## Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak  
Usurbilgo Udala  
Euskal Herrira!



Alazne Arruti

Osakizunez blaitutako egunen artean, oasi txiki bat gorpuztu dut Pirinioetan. Urte berriaren harrera ohartzeko gauzatu genuen eta lanera itzuli aurretik egun batzuk nituenez, Villanugara abiatu nintzen. Lehenago bisitatu gabeko lurak zapaldu berri-tan, 3 egun eskasetan askorik egiteko tarterik ez genuenez, erosketak egin eta eskuartean genituen orduak antolatzen hasi ginen bidaidea eta biok.

Edozein leku lehen aldiz bisitatzen dudanean, turismo bulegora joan edota interneten begiratzeko ohitura dut, inguruan egin daitezkeenak identifikatzeko. Dagoeneko, erreferentzia pare bat jaso nituen eta kasu honetan, berehala topatu nuen etorri berriei herriko puntu interesgarrienak bisitatzeko proposatzen zitzaizen ibilbidea.

Herria bera, ez da oso handia eta berehala amaitu genuen ibilaldia. Azken puntua ordea, bertako Güixak edota haitzuloak ziren. Hitzordua hartua genuen ordu beteko bisita egiten hasteko, eta turismo bulegoaren aurrean zegoen estatuan bildu ginen heldu, gazte zein haurrek osatutako 20 lagunetik gorako taldea. Berehala etorri zen gida, eta lehenik eta behin, non ginen kokatu gintuen.

Villanuga, Aragoi ibarrean

## Güixak eta sorginkeriak



“Lanera itzuli aurretik egun batzuk nituenez, Villanugara abiatu nintzen”.

### ALAZNE ARRUTI

**“Collarada mendigunearen azpian (2.884 m) kokatzen dira Güixa haitzuloak edo ‘sorginen etxeak’. Barrunbe hauek azken glaziazio-garaikoak dira”**

kokatzen den Huesca probintziako udalerrria da. Biztanleen kopururik altuena, XX. mendeko bigarren hamarkadan izan zuten, Canfranceraingo doan trenbideari esker. Gaur egun ordea, 500 erroldatu inguru ditu turismoari esker, 200 biztanlerainoko beherakadari zertxobait eutsi ostean, 1960 eta 1980 artean.

Collarada mendigunearen azpian (2.884 m) kokatzen dira Güixa haitzuloak edo “sorginen etxeak”. Barrunbe hauek azken glaziazio-garaikoak dira, duela 25.000 edo 30.000 urte

ingurukoak. Eta ordutik urak, tantaz tanta, Aragoiko Pirinioetako paisaia espeleologiko ederrerenetako bat sortu du bertan, estalaktitak eta estalagmitak 800 metroko ibilbidean loratzen direlarik.

Haitzulo hauek, sorginekin lotzen dira eta bertan, Tximinia izenez ezagutzen den zulo bat topatu daiteke. Kondairek diotenez, hantxe batzen ziren emakume jakintsuok, ilargiaren argiak zuloa zeharkatzen zuten unean. Ustez, larru gorritan eta gauez, ilargiaz argizatzen zuten euren azala gazte eta lirain mantentzeko asmoarekin.

Dena den, azaleko irakurketa honez gain, gure bisita gidariak modu bikainean orekatu zuten kontakizuna. Azpimarratuaz, jakina dela bakarrik bizi ziren emakume independentei leporatzen zitzaizela batez ere sorginkeriaren aritza. Na-

turarekin lotura eta ezagutza handia pilotzen zuten pertsonak zirela. Urtez urte, belau-naldiz belaualdi, sendabeklar zein osasunaren gaineko ezagutzak partekatzen zituztenak. Eta euren fama txarra iltzatzen zuten arren, bizilagunek euren josten zutela, emagin eta orotariko sengile apartak zirelako.

Dena den, begi bistakoa da Aragoiko sorgin-gune bat kokatu zutela inguru honetan, izan ere orotara herriko 15 emakume epaitu zituzten XV eta XVI mendeen artean, batzuk urkan eta beste batzuk sutan erretzera kondenatu zituztelarik. Hain zuzen, ibilaldia hasi genueneko monumentu sinbolikoa, euren eskainia da eta halaxe dio: Istorioak bruxak isilarazi nahi izan zituen, eta hemen oroimena berreskuratu dugu.

Azpimarratzekoa da, garai hauetan herri-epaiketek izan zuten pisua. Izan ere, horien artean ezagunena, Guiranda de Layada izan zen. Jacako justiziak zigortu zuena 1461eko martxoan, Villanugako zazpi gizonak, euren senideak pozoitu eta gaixotu izana salatu ondotik. Epaiketa prozesuan hamazazpi gizonak beren sorginkeriak berretsi zituzten. Eta galdeketen ondorioz, akelarreak zeintzuk osatzen zituzten aitortu behar izan zuten.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpiroz Eizmendi

Luis Aranalde

Ugaitz Agirre Zapirain

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

**txirriStra**  
TABERNA

-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

**Atari**  
PAIRU/LATEXEA

· bazkariak EGUNERO  
· afariak: OSTIRAL/LARUNBATA

☎ 943 362725  
☎ 688 690 361

# Urtarrilaren 16an ekingo dio Kantu Taldeak ikasturte berriari

**H**amalaugarren ikasturtea abiaraziko du Usurbilgo Euskal Kantu Taldeak urtarrilaren 16an, 18:00-19:00 artean, Udarregi Ikastolako Agerialdeko eraikinean dagoen musika gelan. Egun hau, lehen entsegu saioa egin eta ikastarorako izen-emateko aukera izango da. Une horretatik aurrera, astelehen-ero bilduko dira gune berean; "ikastolaren egutegiari jarraituz", Jaione Eskudero irakaslearen gidaritzapean.



Urtarrilaren 16an hasiko dira entseuetan berriro Agerialdeko eraikinean.

## "Ez gara entseguen bakarrik konformatuko"

"Ikastaroa, kantatzeko gogoia eta ilusioa duen edozein herritarri irekia dago. Kantu Taldearen jarduerara ez da abesbatza baten profil birtuoso baten izaerarekin parekatu behar. Horrek ez du esan nahi kantuan ahalik eta ondoen abesten saiatuko ez garenik. Kantu Taldea lagunarteko bizipen bat da, gozamen

### KANTU TALDEA

**Udarregi Ikastolako musika gelan landutakoa plazaratzeko tarte baliatzen dute hilero, azken larunbateko kantu jiran**

bat, ongi pasatzeko tarte bat, eta batez ere, euskararen indar-

gune eta euskal kantu zaharren eta berrien aldarrikapena kantu-arietaren bidez bultzatuz, gure kulturaren zatitxo hau indartzea. Azken batean, Jon Maiak dioen bezala, gure historia kantuetan idatzita dago. Kantu bat gara", azaldu dute Kantu Taldetik.

Gogoan izan, Udarregi Ikastolako musika gelan lan-

dutakoa plazaratzeko tarte baliatzen dute hilero azken larunbatetan. Abendu amaierako etenaldiaren ostean, urtarrilaren 28rako iragarri dute 2023ko lehen kantu-jira. 12:00etan abiatuko dute bira Mikel Laboa plazatik. "Ez gara entseguen bakarrik konformatuko. Noizbehinka lagun arteko kantu-afariak ospatuko ditugu eta Sutegin, kantu-talderen baten kontzerturen bat antolatzen asmorik ere badaukagu. Aurreak erakutsiko luke zer gehiago egin taldean hartzen diren erabakiak errespetatuz. Kantua, dantza, kontakizuna, ipuinak, bertsoak..., denak elkarren osagarri dira, herrien izaeraren eraikitzaileak; komunitatea indartzeko aproposak eta denboran barrena irauteko adierazpen artistikoak". Hitzordu hauetarako ez ahaztu kantu-liburuxka.

## Ika-mika

# Zuberoako Ikastolen aldeko saskien dinamika arrakastatsua izan da aurten ere

**G**ustura geratu dira Soghuta eta Basaburuko ikastoletako gurasoak aurtengo kanpainarekin, eta baita saski hauek osatzen diharduten ekoizleak ere.

Beste urte batez, saskien

salmentekin ibili gara eta aurtengo emaitzekin gustura gaudela esan dezakegu (2.000 saskitik gora saldu dira).

Gure inguruko herrien kasuan, 183 saski saldu dira, 10.000 eurotik gora lortuz. Eskerrik asko Usurbilgo eta

inguruko herriei dinamika hau sostengatzen jarraitzeagatik. Datu hauek ikusita, gure herrietan oraindik elkartasuna geratzen dela ikusi dugu.

Amaitzeko, saski hauek erosi dituzuenoi, banaketan laguntzen ibili zaretenoi eta

gainontzeko bidelagun guztiei eskerrak ematea besterik ez zaigu geratzen. Espero dugu hurrengo kanpainan ere elkar ikustea! Eskerrik asko Usurbil.

**Nafartarrak**

**Antxeta**  
TABERNA  
egunero irekitzen dugul  
eguneko menua · asteburuko menua  
oilasko erreak, ogitartekoak, razioak...  
paellak enkarguz!  
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

  
**EROSKI/city**  
kale Nagusia 10, USURBIL  
943 361182

  
**JUANTXO**  
BURDINDEGIA  
Zubiaurrenea 8  
943 370 008

  
**Otar-Goxo**  
Elkagaiak  
Zubiaurrenea, nº2  
943 36 55 81  
20170 Usurbil

# “Izenarena adierazi zuenetik argi diogu, Nora da gure alaba”

**N**orari erregistroan izen aldaketa eta sexua onartu diote. Berri pozgarri hau helarazi ziguten lerrootako protagonistek, Maitane Zinkunegi eta Ramon Kamino herrikideek urte amaieran. Noraren gurasoak dira. Hitz Ahok udazken honetan Sutegira gonbidatu zuen Naizen adingabe transexualen familien elkarteak eskaintako hitzaldian hartu zuten hitza jendaurrean lehen aldiz bizi duten errealitatea aurkezteko. “Inork ezin du jakin, pertsonak baino, norbera zein den” zioen saio hartan Bea Sever elkarteko bozeramaileak. Ildo beretik mintzatu dira lerrootan Maitane eta Ramon.



Ramon Kamino eta Maitane Zinkunegi, Noraren gurasoak.

**NOAUA! Nora da zuen alaba. Nora ez da ordea bere betiko izena, ezta?**

**Ramon Kamino:** Peru zen lehen.

**Noiz arte Peru eta noiztik Nora?**

**Maitane Zinkunegi:** Norak duela hiru urte adierazi zuen neska

**MAITANE ZINKUNEGI**  
**“Norak duela hiru urte adierazi zuen neska zela; Peru izan zen duela bi urtera arte”**

zela; Peru izan zen duela bi urtera arte.

**R.K.:** Berak aukeratu zuen izena. Izena eta sexua aldatzeko tramiteetan aritu gara. Eusko Jaurlaritzan, Osakidetzan, ikastolan, udaletxean... denean aldatua dago. Erregistrokoa falta zitzaigun.

**Tramite ofizialena eta zailena?**

**M.Z.:** Bai eta ez. Gauza asko

eskatzen aritu zaizkigu. Adibidez, aldaketa tramitatzekeo epaitegira joan ginenean, endokrino baten txostena behar genuela esan ziguten. Guk Naizen-era deitu eta psikologo baten txostena eraman genuen. Atzera bota eta endokrinoarena behar zutela esan ziguten. Orduan deitu genuen Naizen-era. Handik esan ziguten pediatriari deitzeko, pediatriak endokrino batena bideratu zigun. Txostena egin ziguten, tramite guztia azaldu ziguten nola joango zen, bai hormonon aldetik, ebakuntzak...

**Nola bizitzen ari zarete prozesua, gogorra da?**

**M.Z.:** Gogorra egin zait endokrinoarena joatea. Gainerakoan ez. Pausoz pauso, Norak eskatzen duena egiten ari gara.

**Norarekin batera egiten ari zareten bidea da hau noski?**

**R.K.:** Ikastolan pausoa berak eman zuen. Irakasleari “ni hemendik aurrera neska naiz” adierazi zion.

## “Ama ni ez naiz joango mutilen aldagelara, ni neska naiz”

**NOAUA! Lehenengo pausoa nola eman zuen?**

**Maitane Zinkunegi:** Guk txikitatik ikusten genuen. Hainbat detaile zeuden; azkazalak margotuta, zerbait arroxak jantzita... Egun batetik bestera irakasleari hori esan zion, gela batean esan zuen borobileen jarrita, gero beste gelara joan eta neska zela adierazi zuen.

**Zenbat urterekin?**

**Ramon Kamino:** 7 urterekin.

**Adinarena galdetzen dizuet, auzitan jarri izan baita pertsona batek haurtzaroan nor den adierazteko duen gaita-**

**sun?**

**M.Z.:** Argi eta garbi zuen berak. Guk txikitatik ikusten genuen, pausoa noiz emango zain ginen. Pausoa eman zuen eta hortxe goaz, laguntzen.

**Bide horretan pausoa emateko iniziatiba berak izatea garrantzitsua da, ezta?**

**R.K.:** Erraztasunak emanda ere askotan iruditzen zaio gaizki egiten ari garela. Zertan hanka sartu dugun bueltak ematen dizkiozu, nola ahala zuzentzen ahalegindu. Lagunarte oso ona tokatu zaio, denek onartu dute. Beste gurasoek ere den modukoa onartu dute,

asko balio du horrek.

**M.Z.:** Ikastolak edota Udalak ere asko lagundu digute. Orain adibidez, Eskola Kirola egiten du. Ikasturte erdia futbola, beste erdia eskubaloia. Beti joan da nesken aldagelara. Berak ez du arazorik, gainera gaia atara genionean “ama ni ez naiz joango mutilen aldagelara, ni neska naiz” zioen. Arrazoi zuela eta betiko aldagelara joango zela erantzuten genion. Eskola Kiroleko koordinatzaileari eta udalari esan genion. Ez da arazorik egon. Laguntzeko prest agertu dira beti.

**Ez luke zori kontua izan behar-**

**ko, baina “zortedunak” sentitzen zarete herrian duzuen saregatik?**

**M.Z.:** Bai.

**R.K.:** Naizen-en hilero biltzen gara eta han entzuten diren istorio asko ulertezinak dira gauden garaian egonda. Hainbeste oztopo gainditu eta gero, oraindik zailtasun askok nola segitzen duten.

**Zer egon liteke horren atzean zuen ustez?**

**R.K.:** Ulermen falta. Beste asko daude guk ulertu dugun moduan ikusten dutenak. **M.Z.:** Haurrekiko dugun begirada esanguratsua da.

# “Naizen elkartekoak edozertan laguntzeko prest daude beti”

**NOAUA!** Naizen adingabe transexualen familien elkarteak zer eragin izan du zuen bizimoduan? Nondik hasi zen zuen hartuemana?

**Maitane Zinkunegi:** Norak esan zuenean neska zela Usurbilgo Sexu Aholkularitza Gunea joaten hasi ginen. Noraren irakasleak Naizen-en berri eman zigun. Elkartera deitu nuen, atak segituan ireki zizkiguten. Beldurrez joan ginen. Sexologo batekin hitz egin eta taldean egon ginen nerabe eta gurasoekin. Beste mundu bat da. Edozertarako laguntzeko prest beti.



“Gure bizipenak partekatzen ditugu Naizen elkarteetan, tramiteak nola egin...”.

**Esperientziak partekatzeko eremu garrantzitsua ezta?**

**M.Z.:** Gure bizipenak partekatzen ditugu, tramiteak nola egin... Asteburuetakoa irteerak eta hitzaldiak antolatzen dituzte. Arropa saltzen hasi gara.

**Hitz Ahok udazken honetan Sutegin antolaturiko Naizen-en hitzaldian hitza hartu zenuten lehen aldiz jendaurrean. Nola sentitu zineten?**

**Ramon Kamino:** Hunkituta.

**M.Z.:** Hasieran urduri baina gustura. Hitz Ahoko kide batek deitu zidanean esateko Naizeneko kide bat etorriko zela

## MAITANE ZINKUNEGI

**“Norak esan zuenean neska zela, Usurbilgo Sexu Aholkularitza Gunea joaten hasi ginen”**

hitzaldia ematera, asko poztu ginen. Naizen-ekoak deitu zigun gero, guk hitz egingo ote genuen galdetzeko. Norarekin hitz egin genuen galdetzeko ea nola nahi zuen azaltzea. Bera-rekin adostu genuen zer kontatu, zer ez.

**Nora hitzaldi hartan zegoen la-**

**gunartean. Nola bizi izan zuen berezi hori?**

**R.K.:** Gustura. Lagun eta senideez ondo inguratua zegoen gainera.

**M.Z.:** Jendeak ere gustura, pozik hartu zuen. Laguntzeko prest.

**R.K.:** Batzuk adierazi digute halako hitzaldi gehiago antolatu behar lirakeela jendeak informazioa jasotzeko.

**Nora gehiago egon daitezke herrian. Zer esan haiei?**

**M.Z.:** Naizen-era deitu edo bertara joatera gonbidatuko ni-

tuzke.

**R.K.:** Elkarrearen bileratako batera joan daitezke, eseri, entzun. Bigarren saiorako agian askatzen zara eta zure bizipenak partekatzen dituzu.

**M.Z.:** Gugana etorri nahi badute haien esperientzia partekatzera etorri eta bideratuko ditugu nora joan, eta zer eta nola egin. Ez dira bakarrik egongo.

**Nora Peru baino zoriontsuagoa da?**

**M.Z.:** Orain pozik bizi da.

**R.K.:** Izena aldatuta bakarrik poztasuna du.

## “Etxekook laguntzen ez badiogu, zeinek lagunduko dio?”

**NOAUA!** Izenak ere izana eman dio?

**M.Z.:** Bai. Berak nahi duen moduan janzten da.

**R.K.:** Peru zenean oraindik, edozein arropa dendetara joan eta argi zuen zer arropa nahi zuen. Ze pozik etortzen zen etxera arropa horrekin. Oraindik emozionatu egiten gara.

**M.Z.:** Ikastolan, pandemia aurretik Santa Agedarako esa-

na zegoen neska zela. Norak nesken baserritar jantzia nahi zuen. Traje hura lortu genuen eta jantzi zuenean ze poztasun zuen aurpegian! Bat erosi genion. Poz-pozik joan zen. Irakaslea gainera mutilez jantzi zen.

**Bistan denez, elkarlan hori dago zuen artean?**

**R.K.:** Etxekook laguntzen ez badiogu, zeinek lagunduko dio?

**M.Z.:** Zortea izan du. Badaude ondo hartzen ez dutenak. Izena aldatzeko baimena ez dutenak, aurreko izenarekin egotera behartzen dutenak. Baina berak izen hau nahi badu, izen hori aldatu behar da, pertsona bezala den moduan onartu.

**Norak herritik kanpo etorkizunean izan dezakeen bizimoduaz kezka baduzue?**

**R.K.:** Nik pittin bat, bai. 16 ur-

terekin kanpora joan beharko dute ikastera. Orduan, zer izango den, zer mundu bilatuko duen, ezin jakin. Herrian onartua da den moduan. Baina hemendik kanpo ez dakit zer gerta daitekeen. Oso indartsua da bera, edonori kontra egin behar badio segituan egiten dio eta ondo aterako zaiola iruditzen zait baina... Beti zalantza puntua geratzen zaizu.

# “Zer aldatu beharko litzatekeen? Jendearen pentsamendua, begirada...”

**NOAUA!** Zuen ustez, zer aldatu beharko litzateke Nora etorkizunean mundu atseginago batean bizi ahal izateko?

**Maitane Zinkunegi:** Jendearen pentsamendua. Begirada. Pertsonak gara denok.

**Ramon Kamino:** Denak pertsonak bezala ikustea. Norbera izango da den modukoa, baina denok pertsonak gara. Mundu hau pertsonena da.

Eta pentsamendua. Duela 50 urte edo gehiagoko ikuskera bada oraindik. Nola aldatu? Ez dakit. Oso atzera geratu diren pentsamendu horiek Franco joan zen moduan, han utzi behar dira. Beste mende batean gaude.

**Baten batek galdetuko du elkarrizketa hau egiteko Nora-ren baimena ba ote dugun.**

**M.Z.:** Esan genion. Guk parte hartzeko esan zigun. Naitzen-eko hitzaldia antolatu zenean ere irakasleari segituan esan zion eta berak zabaldu



“Izenarena adierazi zuenetik argi diogu, Nora da gure alaba eta guk seme-alabak ditugu”.

## RAMON KAMINO

**“Norbera izango da den modukoa, baina denok pertsonak gara”**

zuen. Horretarako indar handia du. Gustura eta pozik gara gure alabarekin. Izenarena adierazi zuenetik argi diogu, Nora gure alaba da eta guk seme-alabak ditugu.

**Anai-arrebentzako ere aldaketa izango zen?**

**R.K.:** Askok maite eta laguntzen dira.

**Lerro hauek irakurriko ditu Norak. Zer esan nahi zeniokete?**

**M.Z.:** Hor gaudela eta beti hor egongo garela, gu eta familia edozertarako laguntzeko prest.

**R.K.:** Laguntzeko hor gaudela beti. Eta orain arte izan duen indarra izaten segitzeko.

## Hitzaldi ziklo berria, Hitz Ahoren eskutik

Asteotarako hitzaldi zikloa antolatu du Hitz Aho Udaregi Ikastolako guraso elkarteak.

**Urtarrilak 12 eta 19, ostegunak**

■ 17:00-19:00 “Arauk eta mugak familian. Nola ezarri modu asertibo batean” tailerra Potxoenean, haur eta nerabeen gurasoentzat.

■ Izen-ematea: usurbilkultura.eus gaztelekuausurbil@gmail.com hitzaho@udarregi.eus.

■ Oharra: laza kopuru mugatua.


■ Antolatzaileak: Gaztelekua eta Hitz Aho.

**Urtarrilak 26, osteguna**

■ 17:00-19:00 “Interneteko arriskuak eta ziberseguru jokatzeko aholkuak” solasaldia Potxoenean.

■ Hizlaria: Urko Zurutuza Ortega.

■ Zehaztasunak: “Nahiz eta guk ez jakin, gure etxeko “router”-ek ehunka eraso jasaten dituzte egunero. Hau gutxi ez eta, Interneten nabigatzean arrisku askori egin behar diegu aurre, bai etxeko ordenagailu, eta baita eskuko beste gailuetan ere. Segurtasun erremintak baliogarriak izanik ere, herritarrok gai hauetan dugun ezjakintasunak arriskuak sortzen



**Ziberseguru jokatzeko aholkuak eskainiko dituzte urtarrilaren 26an.**

ditu. Honi buruz hitz egingo dugu solasaldian”.

Antolatzailea: Hitz Aho Udaregi ikastolako guraso elkarteak.

**Bueltan dator**

**Odol-Emaleen Eguna**

Historikoki abenduaren 8a izan da Usurbilgo Odol-Emaleen Eguna. Azken urteotan etenda zuten ohitura urte hasiera honetarako berreskuratu dute. Hilaren 22an bazkaritan biltzeko deia egin diete Usurbilgo odol-emaleei eta bertaratu nahi duten gainerako herrikideei. Otorduan bertan odola 25, 50 edota gehiagotan eman duten 11 herrikide omenduko dituzte. Haiei guztiei diplomak eta oroigarriak banatuko dizkiete.

Bazkariaren aurretik, bi hilean behin izaten den odol-ematea datorren astelehenean, hilaren 16an.

**2022ko balantzea, pozgarria**

“218 odol-poltsa jaso dira 160 herritarrek emandako odolarekin. Haietatik 13 izan ziren iaz lehen aldiz odola eman dutenak”. Emaitza hauekin pozarren dira aipatu bilguneko kideak. Lerroon bidez, iaz odola eman zuten guztiak eskertu nahi dituzte, bereziki estreinakoz odola ematera joandakoak.

**Deialdiak**

**Urtarrilak 16, astelehena**

■ 16:30-20:30 Odol-ematea Udaregi ikastolako erdiko aretoan. Aurrez odola eman dutenei hitzordua finkatuko zaie. Lehen aldiz odola ematen dutenek dei dezatela 943 007 884 telefono zenbakira.

**Urtarrilak 22, igandea**

■ Usurbilgo Odol-Emaleen eguna. Bazkaria Patri jate-txean eta diploma zein oroigarrien banaketa 25, 50 eta gehiagotan odola eman duten 11 herrikideri.

■ Otordurako izen-ematea, hilaren 18a baino lehen: 943 363 102 (Agustina). 619 125 644 (Mari Jose).

■ Prezioa: 35 euro.

■ Antolatzaileak: Usurbilgo Odol-Emaleen elkarteak.



# Erregeen kabalkadak jendetza erakarri zuen

**G**abonak agurtu eta haurrak egunerokotasunera itzuli aurretik, erregeen bisita jaso zuten askok. Ohitura den moduan, erregeen postaria herriko frontoian izan zen goizean laguntzaileekin batera.


Ilara luzeak sortu ziren frontoian goizeko 11:30ean erregeen postaria hartzeko. Haurrek gutuna eman eta postariarekin hitz egiteko aukera izan zuten banan-banan. Eguerdian, mendira itzuli ziren erregeekin elkartu eta arratsaldeko kabalkada prestatzeko.



Ilara luzeak sortu ziren frontoian erregeen postarien aurrean.



Aurten bai, bidelagunez inguratuak heldu ziren erregeak. Gozoki gosez ziren herrikideekin batera osatu zuten Urdaigatik frontoirainoko ibilbidea.



Lotu azeri bakoitzari bere benetako itzala.



### Bost eta bat?

Elementu hauen artetik gehienak hiruzpalau aldiz ageri dira, baina ugariena, berriz, bost aldiz ageri da. Zein ote da? Txantxangorria? Gorostia? Izei hostoa? Azeri-buztana? Bestalde, bada beste elementu bat soilik behin ageri dena. Jabetzen al zara?

### Sudokua



		Z	E		
E	2			I	A
	R			E	
	Z			R	
R	A			Z	E
	E	I	R		

Zer dugu sudoku-taularen gainean? Bada, 2 azeri. Hain zuzen, erantzun horrek dituen hizkiak baliatu beharko dituzu sudokua osatzeko (2, A, Z, E, R eta I).



Aurkitu bi pinguinoen arteko aldeak. 11 dira guztira.

### Baietz HamaiKa!



## Bakoitzari berea



**HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA**

						.	,	!	?

## Mezu ezkutua

Klima aldaketak aztoratu egin du toki hotzetako fauna, eta bereziki gure pinginoak. Hala ere, zentzuzko esatera zahar bat hartu dute biek ahotan. Zein da? Eman marrazkitxo bakoitzari dagokion hizkia eta asmatuko duzu.



## Irudi engainagarriak

Zati hauen artetik erdiak (4) irudi handitik hartuta daude eta beste erdiak ez. Bereiz itzazu. Bide batez, margotu ezazu irudi nagusia.

# Ohikora itzuli den txotx garaia bueltan da, pizgarri berriekin

A bian da txotx bolada berria, egunotan ekingo zaio sagardotegietako ohiko erromesaldiari. Ohikoa, hortxe datorren denboraldi hau defini dezakeen hitz gakoa. Azken urteotan ez bezala, oraingo honetan bai, sagardo berria zutik dastatu ahalko dugu, txotxetik, kupeletako joan-etorrietan. Horregatik pozarren agertu da Euskal Sagardo Jatorri Izendapenak biltzen duen sektorea, aste hasiera honetan Donostiako Tabakalera ingindako agerraldian.

Ekitaldia girotu zuten Kukai Dantza taldeko kideak ageri diren promozio bideoa aurkeztuta abiarazi zuten hitzordua. “Bertako plazerra, bertako ekoizpena, bertako sagasti eta paisaiak... eta kupeletik dastatuko dugun sagardoa izan dira gure artistek irudi eta koreografiatara eraman dituztenak”. Youtuben duzue ikusgai, Euskal Sagardoaren kanalean.

“Bertako Plazerra” aldarria- ren bueltan batu ditu aurkeztu- penak hainbat eragile; tartean, udalerrri honetako zenbait sagardogile. Ohiko dastatze modura itzuliko gara aurten sagardo berria, aipatu moduan. Iazkoa baino uzta txikiagoa izango da



Sagardo berria zutik dastatu ahalko dugu, txotxetik, kupeletako joan-etorrietan.

## ERRESERBAK EGITEKO

**Sagardotegietako erreserbak online egin daitezke sagardoa.eus atarian**

kopuruz, “udako eguraldi lehorrak are txikiago egin du uzta”, ohartarazi dute. Ondorioz, “izaera handiagoko sagarra etorri da, bai tanino aldetik eta baita azukre aldetik ere”. Guztira, 1,2 milioi litro sagardo ekoiztu da Euskal Sagardo Jatorri Izendapenaren baitan.

### Testuinguruaren eragina

Zenbaki gehiago segidan. 48 sagardotegi daude egitasmo honetan; bi arabar eta lau bizkaitarrekin batera, 42 Gipuzkoan. Ia

500 hektarea lantzen dituzten 250 sagargile. Uzta berri honetarako 2 milioi kilo sagar jaso dituzte. Datuoi esker, “Euskal Sagardo desberdinak izango ditugu merkatuan: kapsula gorri eta doratukoak batetik, baina sagar mota jakinez eginak, sagasti bakarreko sagarrez eginak, egurrean ondua... aukera geroz eta zabalagoa aurkitu ahal izango du kontsumitzaileak”.

Hori bai, iaz baino garestixeago. Bizi dugun testuinguru sozioekonomiko nahasian izan den inflazioaren gorakadaren eraginez, eta zehazkiago alor honi zuzenean eragiten dieten “beiraren, kartoiaren, energiaren eta gasoilaren” garestitzeak eraginda, “Sagardo Sektoreak %25 inguru igoko du sagardoaren prezioa”.

### Dastatze gidatuak

Sagardotegietan lekua hartzeko garaia heldu da. Online egin daitezke erreserbak sagardoa.eus atarian, bestela ohi bezala telefonoz baita. Sagardo berria etxean dastatu nahi duenak gainera, Euskal Sagardoaren atarian online dendan, 90 sagardotik gora eskuragarri dituzte.

Sagardo Dastatze Gidatuak antolatuko dituzte estreinakoz zenbait sagardotegietan otorduen aurretik. “Aukera aparta da sagardogilearen eskutik produktuaren berezitasunak jasotzeko ere”. Bezeroen eskariz hasi dira eskaintzen zerbitzu hau. “Sagardotegira gerturatzen den bezeroak bertako ekoizle baten etxera egingo du bisita, bertako lurretik bizi den familia baten etxera”, gogorarazi dute.

## Erreserbak egiteko garaia

### Aginaga sagardotegia

Helbidea: Aginaga auzoa.  
943 36 67 10.  
info@aginagasagardotegia.com  
Web orria:  
aginagasagardotegia.com

### Araeta sagardotegia

Helbidea: Berridi bidea 22,  
Zubieta.  
943 362 049.  
araeta@araeta.com  
Web orria: araeta.com

### Iruin sagardotegia

Helbidea: Petritza bidea 12,  
Zubieta.  
943 361 229.  
info@iruinsagardotegia.com  
Web orria: iruinsagardotegia.com

### Urdaira sagardotegia

Helbidea: Urdaira baserria,  
Aginaga.  
943 372 691.  
info@urdairasagardotegia.com  
Web orria:  
urdairasagardotegia.com

### Arratzain sagardotegia

Helbidea: Arratzain Bide kalea,  
21.  
623 460 819.  
info@arratzain.eus  
Web orria: arratzain.eus

### Saizar sagardotegia

Helbidea: Kalezar, 39.  
943 37 39 95/ 943 364 597.  
sidreria@sidrassaizar.com  
Web orria: sidrassaizar.com

### Aialde-Berri sagardotegia

Helbidea: Santuenea 37.  
943 365 031.  
Web orria: aialdeberri.eus

## 400etik gora lagun izena emanda, Irisasi BTT-n

Hilabete amaieran, mendiko bizikleta zaletuen topagunea izango da herri hau. Urtarrilaren 29rako iragarri dute Irisasi BTT Hotzak Akabatzen probaren hamaikagarren edizioa. Ohi bezala Andatzari itzulia emateko aukera izango dute bizikleta gainean, proba honetan parte hartuko dutenek. Hilabete honetako azken igandean, 9:00etan abiatuko dira Mikel Laboa plazatik.

### Izen-ematea urtarrilaren 25ean amaituko da

Probarako aurrez izen emateko aukera izango duzue, urtarrilaren 25era arte, kronoak.com atarian. 500 lagunentzako tokia egongo da proban, antolakuntzak ohartarazi duenez ordea, 400etik gora lagunek bideratu dute inskripzioa.



500 lagunentzako tokia egongo da. Dagoeneko 400 dira izena eman dutenak.

## Mantentze-lanak Santuenerako zubian

Urtarrilaren 4an Santuenerako zubia itxita egon zen denbora tarte batez. Zubi ondoko zuhaitz baten adarrak moztu behar zituzten eta, horretarako, garabi-lanak egiteko kamioi bat ipini behar izan zuten zubiaren erdian. Trafikoa oztopatzen zenez, errepidea itxita egon zen bi norabideetan. Oinezkoei aldiz, txandaka pasatzeko aukera eman zitzaion.

Ordu t'erdiko lanaren ondoren betiko martxa berreskuratu zuten Santuenea auzoak.



Ordu t'erdiko etenaren ondoren, Santuenerako zubiak betiko martxa berreskuratu zuten.

### Eneko Furundarena, 4 Nazioen Txapelketan

Eneko Furundarena Bidasoa Iruneko jokalaria usurbildarrek Espainiako junior mailako selekzioaren deia jaso zuen. Urtarrilaren 6tik 8ra 4 Nazioen Txapelketa jokatu zuen Hildesheim (Alemania) hirian.

Rodrigo Reñonesek zuzentzen du Espainiako junior taldea eta Eneko Furundarenarekin batera Bidasoa Irun taldeko beste lau jokalaria deitu zituen: Gorka Nieto, Julen Urruzola, Julen Mujika eta Asier Iribar.

Frantzia, Alemania eta Portugal izan ziren Espainiako selekzioaren aurkariak 4 Nazioen Txapelketan.

### Mundu Txapelketa, begi-bistan

Aurreko asteburuko txapelketaren ondoren, hitzordu garrantzitsua izango dute begi-bistan: ekainaren 20tik uztailaren 2ra Alemanian eta Grezian jokatu den junior mailako Mundu Txapelketa.



Espainiako junior mailako selekzioarekin izan da Alemanian.

Zuen  
publizitatea  
hemen

943 360 321  
publizitatea@noaua.eus

·EGUNEKO MENUA  
·KARTA  
·RAZIOAK  
·HANBURGESAK  
·BOKATAK

ARTZABAL  
BASERRIA · JATETXEA

www.artzabaljatetxea.com 943 36 91 39

eskura  
elikadura eta dietetika aholkularitza

DIABETESA, HIPERTENSIOA,  
GIZENTASUNA, ELIKADURA  
ETA KOLESTEROL ARAZOAK

688 843 696  
Zubiaurrenea 1, 1c Usurbil

# Igor Labaka Lizarazu, Hawaiiitik bueltan: “Txiki-txikitatik nuen ametsa bete dut”

**H**aurtzaroko ametsa beteta pozarren amaitu du 2022. urtea Igor Labaka Lizarazuk. Onenekin bildu zen udazkenean Hawaiiin egin zuten mundu mailako Ironman txapelketan. Halako proba batean parte hartu duen lehen herrikidea dugu.

## NOAUA! Nola heldu zinen Hawaiiiko mundu mailako proban parte hartzera?

**Igor Labaka Lizarazu:** Bertan ez du nahi duenak parte hartzen, probarako sailkatu denak baizik; munduan zehar beste sailkapen txapelketa postu bat eskuratzen dutenek. Nire kategorian sei plaza zeuden eta seigarren postuan sailkatu nintzen.

## Hawaiiiko finalean egoteko ametsa noiz jaio zen?

Triatloian 20 bat urte daramatzat. Duela 15 urte hasi nintzen Ironman distantzian. Haurtzaroko ametsa zen. Txikitari etxean zegoen aldizkari bateko artikuluan irakurri nuen 1988an joan zela bertara lehen euskalduna. Txunditua geratu



“Triatloian 20 bat urte daramatzat. Duela 15 urte hasi nintzen Ironman distantzian”.

### IGOR LABAKA

**“Hawaiiiko Ironman-ean 4.000 partaide izan gara. Horien artean 20 bat euskaldunak ginen”**

nintzen mundu horrekin. Betidanik izan dudana erronka bat izan da. 10-12 urtez bertako proban sailkatzeko ahalegindu

naiz eta urrian lortu nuen. Txiki-txikitatik nuen ametsa bete dut.

## Lehenengo herrikidea gainera Hawaiiin?

Lehenengoa bertarako sailkatzeko oraingo munduko txapelketa honetarako. 4.000 partaide inguru izan ginen proban. Lehen aldiz bi egunetan egin

zen. Azken hiru urteotan pandemiaren ondorioz Hawaiiiko proba ez da antolatu eta aurreko urteotan sailkatutakoak aurtengo edizioan parte hartu dugu. 2.000 partaide izaten dira bestetan, oraingoan 4.000 partaide izan gara. Horien artean 20 bat euskaldun; Hernaniko bat, bizpahiru donostiar, arabarrak, bizkaitarrak...

## “Kirol honetako profesionalak nahiko xumeak eta gertukoak dira”

### Gozatzera joan zinen edo lehiatzera gehiago?

Niretzat saria bertan egotea zen eta hangoaz gozatzea. Lehiakorrek garenaz, ahalik eta hoberen egitea ere bai. Kasu honetan ordea, lasterketa ez zen ondo atera. Bi hilabete lehenago, beste Ironman proba batean parte hartu nuen eta ez nintzen ondo errekuperatu. Egunean bertan bertako baldintzak oso gogorrak dira gainera. Horregatik, pentsae-

ra aldatu eta goatzera joan nintzen. Esperientzia izugarria izan da. Kirol honetako profesionalak nahiko xumeak eta gertukoak dira. Proba honen berri lehen aldiz 1988an izan nuen eta proba honen edizio famatuena 1989koa da. Bertan, bi amerikarren arteko lehia handia izan zen eta edizio hura lehiakorrena bezala ezagutu izan da. Proba hartako bi lehiakideekin argazkiak ateratzeko aukera izan nuen.

### Proba honen ezaugarriak deskribatzerik bai?

3,8 kilometro igeri, 180 kilometro bizikletan eta 42 kilometro korrika maratonia. Hawaiiiko berezitasuna baldintza klimatiko oso gogorrak dira; beroa, hezetasuna, haizea... Lur bolkanikoan egiten da proba. Lurretik datorren beroa eta hezetasuna deskribatzea zaila da. Gogor samarrak dira baldintzak, baina ez apartekoak beste proba batzuen aldean. Beste lasterke-

ta askoz gogorragoetan parte hartu izan dut. Bertan dagoen maila aipatu behar da, denak onak dira.

Munduko figura guztiekin lasterketan topa zaitezke edo entrenatzen, edo kafetegian... Lehen egunean igeri egitera joan ginen portura eta zer eta txapeldun olinpikoarekin parez pare topo egin eta kasu egin zidan. Bertan dagoen gertutasuna handia da.

# “Mila koloretako arrainak ikusi ditut Hawaiiin”

**NOAUA! Zer nolako herrialdea ezagutu duzu?**

**Igor Labaka Lizarazu:** Ez zen turistikoki gehien bisitatzen den zonaldea, baina horrek zuen alde ona zen, turistikoki ez dagela ustiatua, nahiko naturala zela. Herrixka txikiak ziren, familia bakarreko etxeak, lasterketaren zonaldean izan ezik. Oso polita eta ezberdina. Oso bolkanikoa lasterketa eremua eta beste alde, oporraldian ezagututakoa oso berdea, ur askokoa. Labazko hondartzak, hondartza beltzak. Dordokekin igeri egiteko aukera izan dut. Mila koloretako arrainak ikusi ditut, itsasoko fauna izugarria da. Bi astez izan naiz; lehen astea 12 orduko aldaketa dagoenez egokitzen, baita bertako baldintza klimatikoetara ere. Probarena baliatuta, beste aste bat geratu nintzen han oporretan.

**Nola hasi zinen triatloi munduan, korrika eginez zure kasuan?**

Txiki-txikitatik atletismoan aritu nintzen. Bizikleta ere oso



“Triatloia asko zabaldu den kirol bat da, batez ere azkeneko 20 urteotan, jarduera olinpiko bihurtu zen unetik”. Irudian da Igor Labaka Lizarazu, Hawaiiiko Ironman lasterketaren helmuga igaro berritan.

gustuko nuen eta triatloira pasa nintzen. Atletismoarekin jarraitzen dut, neguko denboraldia egiten dut.

**Aldizkari hura irakurri zenuen garaitik hona triatloirako ohi-**

**tura nabarmen hedatu da. Leherketa moduko bat izan da azken urteotan ezta?**

Askok zabaldu den kirol bat da, batez ere azkeneko 20 urteotan, jarduera olinpiko bihurtu zen unetik. Eta bai, beste ki-

rol batzuekin gertatu den moduan, modan jarri zen. Gero suertatu zen, inguruan ere oso ondo zebilen jendea zegoela, gure kasuan Eneko Llanos, eta horrek ere jendea jarduera honetara bultzatzen du.

## “Otsailaren erdialdera abiatzen da duatloi denboraldia”

**NOAUA! Gaurkoz hiru kirol jardueretan, atletismoa duzu favoritoena?**

**Igor Labaka Lizarazu:** Ez nuke jakingo esaten bizikleta edo korrika nahiago dudana. Dakidana da igeri egitea dela gutxiengustatzen zaidana, baita okerren ematen zaidana ere. Gustukoak ditut biak, urteko hainbat uneetan bata edo bestea ezingo nuke aukeratu.

**Txikitako amets erraldoi hau beteta, jarduerotan zabilzatenok erronka zaleak zaretela kontuan izanda, ez da erraza izango orain tamaina honetako erronkarik planteatzea? Nahi nuen ametsa bete dut.**

Kirola egiten jarraitzeko asmoa dut, inolako zalantzarik gabe. Beti egin dudana zerbait da eta hau gabe bizitzea zaila litzateke niretzat.

**Epe motzean hitzordurik?**

Otsaila aldera abiatzen da duatloi proben denboraldia, apirila inguruan triatloi probena.

**Txirrinda gainean mendia nahiago? Ala errepidea? Eta hala bada, kasu honetan seguru ibiltzen al zara?**

Errepidea nahiago izaten dut. Egia esan, hemen nahiko zortea dut, beti toka dakizuke baina ez dugu aparteko arrisku edo arazorik bizikletan ibil-

tzeko. Toki askoz okerragoetan izan naiz bizikletan ibiltzen, Hawaii horren lekuko. Istripuak halere izaten dira noski eta penagarria da, istripuia izan eta penalki ez delako ezer gertatzen.

**Baxurde Txiki U.T.T.-ko kidea izanik, pozik udazken honetan krosa berreskuratuta ezta?**

Pandemiarekin beste gauza batzuk bezala krosa bertan behera utzi behar izan dugu. Argi genuen antolatzen jarraitu nahi genuen krosa zela. Pozik gaude berriz ere egin ahal izan dugulako. Bai helduena eta umeena. Haurren krosarekin giro ona sortzen da. Kirola eginez ondo pasa daitekeela bista-

ratzen da. Garrantzitsuena ez dela irabaztea edo postu on batean sailkatzea, parte hartzea baizik. Duela 13 bat urte sortu zuten taldea kirolari beterano eta gazte batzuk. Azken urteotan tarteka gazteren bat edo beste sartu izan da. Kirol jarduera hauetarako zaletasuna izan edo probatzeko gogoia dutenak taldera gerturatzerantz animatu nahi nituzke. Eskuzabalik hartuko ditugu.

**Zer eman dizu triatloiak?**

Inguruak ezagutzea, jende ezberdin eta lagun asko ezagutu ahal izateko aukera eta bizi-esperientzia ederrak.

# Bi ikastaro Parekidetasun Sailetik

U surbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak bi ikastaro antolatu ditu urte hasiera honetarako. Biodantza ikastaroa aste honetan bertan hasi da eta martxoaren 28ra arte luzatuko da. Norberaren zainketari buruzkoa da bigarren ikastaroa eta urtarrilaren 19tik aurrera ostegunero elkartuko dira Potxoenean.



Aste honetan hasiko da biodantza ikastaroa. Asteartero batuko dira Oiardon.

## “Biodantza” ikastaroa

- Iraupena: Urtarrilaren 10etik martxoaren 28ra.
- Saioak: Asteartero, 15:30-17:00 artean, Oiardegi kiroldegian.
- Bideratzailea: Eider Zuriarain.
- Zehaztasunak: “Gorputz adierazpen sistema bat izateaz gain, garapen pertsonalerako proposamena ere bada non,

## PAREKIDETASUN SAILA

### “Ikastaro hauen bitartez emakumeentzako hausnarketa espazio bat lortu nahi da”

talde testuinguru batean, musika, mugimendua eta ariketa/dantza antolatuen bitartez,

gure gaitasun naturalak gartzatzen diren”.

## “Aprender a quererse y a cuidarse bien” ikastaroa

- Epea: urtarrilaren 19tik martxoaren 30era.
- Saioak: ostegunetan, 17:00-19:00 artean Potxoenean (gaztelaniaz).

- Bideratzailea: Kontxi Lopez Soria.
- Zehaztasunak: “Emakumeoi jasotzen dugun genero-hizkuntza dela eta zaintzaile, hezitzaile, emozio-kudeatzailerola esleitzen digute. Inguruko beharrak norberarenak baino garrantzitsuagoak direla azpimarratuz eta norberaren zainketa alde batera utziz. Ikastaro honen bitartez emakumeen arteko topaketa eta hausnarketa espazio bat lortu nahi da, eta emakumeen bizi kalitatea hobetu hazkundera pertsonalaren bitartez”.
- Izen-ematea: Doan urtarrilaren 9ra arte, 943 377 110 telefono zenbakian edo parekidetasuna1@usurbil.eus helbidean.
- Oharra: plaza kopuru mugatua.

## Plazan Bazan, 10/11 orrialdeetako soluzioak

**Sudokua**

A	I	Z	E	2	R
E	2	R	Z	I	A
I	R	A	2	E	Z
2	Z	E	A	R	I
R	A	2	I	Z	E
Z	E	I	R	A	2

**Bost eta bat?** Elementu hauen artetik gehienak hiruzpalou aldi ageri dira, baina ugariena, berriz, bost aldi ageri da. Zein ote da? Txantxangorria? Gorostia? Izei hastoa? Azeri-buztana? Bestalde, bada beste elementu bat soilik behin ageri dena. Jabetzen al zara?

**Baiez Hamak!**

**Bakoitzari berea**

**Mezu ezkutua**

Klima aldaketak aztoratu egin du toki hotzetako fauna, eta bereziki gure pinginoak. Hala ere, zentzuzko esana zahar bat hartu dute biek ahotan. Zein da? Eman marrazkitxo bakoitzari dagokien hizkia eta asmatuko duzu.

**Irudi engainagarriak**

Zati hauen artetik erdiak (4) irudi handitik hartuta daude eta beste erdiak ez. Bereziz itzazu. Bide batez, margotu ezazu irudi nagusia.



**ETXEBIZITZA****Salgai**

Etxebizitza erosi nahi dut Usurbilen. 623467316.

Pisua salgai Munalurra kalean. 3 gela, komuna, sukalde eta egongela handiak, garajea, trastelekua, balkoia, terraza. 688 710 916.

**Alokairuan**

Logela bila nabil Usurbil, Aginaga aldean. 643 830 772 (Luis).

Usurbilen logela bat alokatzen dugu neska edo emakume bantentzako. 618032966

**MOTORRA****Salmenta, garajeak**

Bigarren eskuko Ford Focus Berlina Trend bost ateko ibilgailua salgai. Berria, zaindua, garajea egondakoa. 56.000 km. 125 zaldi. Gasolina. Aurreko bi gurgpilak lau urtaroea-

rako baliagarriak. 11.900 euro. 629 553 497 (Beatriz).

Gutxi erabilitako lau gurgpil salgai (195/65R15 91H). 200 euro. 671 54 75 67.

Aginagan, Elutx kalean 30 m<sup>2</sup> garaje itxi bat salgai. 629 460 966

Marradun garaje plaza bat alokatzen da Kale Nagusian, Bizkarren. 687 406 209.

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. 625701616.

**LANPOSTUAK****Lan eskaintzak**

Laukote okindegian langile bat behar dugu lanaldi erdiz aritzeko. 634 401 171.

Lan egin nahi duzu zerbitzari bezala 40 orduko kontratu batekin? Animatu eta deitu hona: 680483164

Batzilergoko lehen mailako ikasle bati euskaraz matematikako klase partikularrik eman-go diziok pertsona baten bila gabiltza. 608201745

Klase partikularrik emateko prest dauden zerranda osatzen ari da Udarregi Ikastola. Interesa dutenek 943 36 12 16 telefono zenbakira dei dezatela.

Zerbitzaria behar dugu aste-buruetan, 12:00-19:00 artean lan egiteko Olarrondon. 626 686 036

Guria Tabernan sukaldari laguntzailea behar da asteburuetan lan egiteko. 677 20 87 44

Saizar Sagardotegian zerbitzaria behar da asteburuetarako, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 660788832.

Zerbitzariak behar dira Aginaga sagardotegian, urte osoan ze-

har astebukaeratan lan egiteko. 943 366 710.

Zerbitzaria behar da Atxega jantetxean. 666 671 444

**Lan eskaerak**

Pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiteko lan bila dabilen neska euskalduna bat naiz. 626 604 527

Haurrak zaintzeko eta ingeleseko klaseak emateko prest da goen neska euskaldun gaztea. 697 46 55 55 (Olatz)

Kurtsoan zehar arratsaldeko haurrak zaintzeko prest eta esperientziarekin. 695 184 179 (Ane)

Kurtsoan zehar klase partikularrik emateko edota haurrak zaintzeko lan bila nabil. Magisteritzan graduatua eta esperientziaduna. 679 219 805 (Iratzi)

Ikasturtean zehar umeak zaintzeko edota Lehen Hezkuntzako ikasleei klase partikularrik emateko lan bila nabil. 688645491 (Nahia)

Ostalaritzan edo pintura lanean zein igeltseritzan lan bila nabil. Urteetako esperientzia lehen mailako ofizial bezala eta ostalaritza munduan ere bai. Negozio propioa ere izan dut ostalaritzan. 657 683 762

Umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko lan bila nabil, orduka zein egun osoz. 624 509 470

**BESTELAKOAK**

Erloju digital bat aurkitu dugu Agerialdeko patiorako sarreran, Arratzain bideko espaloian. Erlojua beltza da eta pausoak neurtzen dituen horietakoa da. Galdu duenak Udaltzainetan galdetu, bertan utzi duqu.

**Futbol partidak****Haranen:****Urtarrilak 14, larunbata:**

■ 10:30 Infantil neska:  
-Usurbil FT A  
-Arrupe Chaminade CD A

-Usurbil FT B  
-Arrupe Chaminade CD B

■ 12:00 Jubenilak:  
Usurbil FT B-Hernani CD C

■ 15:30 Preferente neska:  
Usurbil FT-Orioko FT

■ 17:45 Preferente mutilak:  
-Usurbil FT-Sanpedrotarra FE

**Urtarrilak 15, igandea:**

■ 11:00-13:00 Futbol Eskola.

**Pilota partidak****Urtarrilak 13, ostirala****Usurbilgo frontoian:**

Gipuzkoako errendimendu txapelketa

■ 18:00 Alebinak 2. Maila:  
-Pagazpe 2  
-Ziotza 1

**Goardiako farmaziak**

**Osteguna 12** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Ostirala 13** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Larunbata 14** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Igandea 15** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Astlehena 16** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Asteartea 17** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

**Asteazkena 18** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Osteguna 19** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Ostirala 20** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loliola 9. Lasarte

**Larunbata 21** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Igandea 22** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

LARUNBATETAN,  
Usurbilgo bi farmaziak irekita  
egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
GOMEZ BRAVO, MARINA  
Kale Nagusia, 14 Hernani  
943 55 48 92

**Gainontzeko datak [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian eta aplikazioan dituzue ikusgai.**

# Agenda

urtarrila

## 12 osteguna

■ Tailerra: "Arauk eta mugak familian. Nola ezarri modu asertibo bategan". 17:00etatik 19:00etara, Potxoenean. Izen-ematea: usurbilkultura.eus plataforman edo helbideotan: gaztelekuusurbil@gmail.com / hitzaho@udarregi.eus

## 13 ostirala

■ "Erraustegiaren kutsaduraz azken berriak" ekitaldia. 18:00etan, Potxoenean. Deitzailea: Erraustegiaren Aurkako Mugimendua.

## 15 igandea

■ "Isturizetik Tolosan barru" ikus-entzunezkoaren aurkezpena 18:00etan Sutegin. Gonbidapenak: doan usurbilkultura.eus plataforman edo Lizardi liburu-dendan. Antolatzaileak: Jexux Artze Kultur Elkarte eta Usurbilgo Udalak.

## Erraustegiaren kutsadurari buruzko datu berrien aurkezpena

Ostiral honetan, urtarrilaren 13an, Erraustegiaren Aurkako Mugimendua ekitaldi bat deitu du Potxoenean. Arratsaldeko 18:00etatik aurrera, erraustegiaren kutsaduraz azken berriak eskainiko dituzte.

Batetik, ToxicoWatch fundazioaren biomonitorizazioaren 2021eko emaitzak aurkeztuko dira hitzordu honetan eta baita Malen Azpiazu Zubeldia herriki-dearen Gradu Amaierako Lana: "Metal astunen determinazioa erraustegiaren inuruko goroldio laginetan".



Malen Azpiazu Zubeldiak Gradu Amaierako lanaz jardungo du ostiral honetan Potxoenean.

## Ikastaroak KzGunean

KzGunea 9:00-13:00 artean irekiko dute urtarrilean. Hemen datozen ikastaroen berri:

- Urtarrilak 17, 9:00-11:00: "BakQ ziurtagiria".
- Urtarrilak 18-31, 9:00-11:00: "Ofimatika tresnak-LibreOffice".

### Informazio gehiagorako:

Kale Nagusia, 37  
943 023 684  
tutor.usurbil@kzgunea.net



BakQ ziurtagiria eta LibreOffice zerbitzuari buruzko ikastaroak iragarri dituzte egunotarako.

### Datozenak

## "Zaharrak gara eta libre" solasaldia Potxoenean

Zaintza ekosistema eredu propioa eraikitze bidean, azaroaz geroztik abian den hitzaldi zikloaren baitan, "zaharrak gara eta libre" saioa antolatu dute Usurbilgo Udalak, Emaginek, Matiak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, urtarrilaren 27an 18:00etan Potxoenean. Miren Aranguren (Emagin elkarte), Mari Luz Esteban (EHUKO irakaslea) eta Ruth Iturbide (NUPEKO irakaslea) izango dira hizlariak.

### "Nola nahi dugu zahartu? Nola nahi dugu hil?"

Azken urteotan zahartzaroaren ikuspegi feministatik ekarpen oso esanguratsuak egin dira azken urteotan. Horretan ezinbesteko lana bilakatu da Mari Luz Estebanek argitaraturiko "Andrezaharren Manifestua". Esteban gonbidatuko dute solasaldira. Adinkeria eta adinkeria generoarekin nola gurutzatzen den ere aztertuko dute baita "horrekin zer ondorio dituen, zer zapalkuntza eta indarkeria adierazpen dituen". Izen-ematea:

- gizarte-zerbitzuak@usurbil.eus
- 943 377 110.
- usurbil.eus/zaintza-azoka

ADA  
-MASAJEAK-  
633 36 22 33  
erreka-txiki 1, USURBIL

Kima  
MASAJE LKUA  
·KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA  
Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

www.noaua.eus  
USURBILGO ATARIA

# URDAIRA

## Sagardotegia

**AGINAGA**  
**943 37 26 91**

astelehenak itxita



## OTSUA-ENEA

### SAGARDOTEGIA

**943 55 68 94**

Osinaga bailara, HERNANI



# LARRE-GAIN

## DOLARE SAGARDOTEGIA

Urtarrilaren 19tik maiatzaren 7ra  
TXOTX-GARAIA

Hernanitik autobus zerbitzu propioa larunbatetan  
Igande gaua eta astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria **Ereñotzu - Hernani**  
Tel: **943 55 58 46** Mugik: **616 287 867**



[www.frusagsagardotegia.com](http://www.frusagsagardotegia.com)



# ELUTXETA

## SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehen eta astearte izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • **943 55 69 81**

# SAGARDOTEGIA

## aginaga

URTE OSOAN  
ETXEAN EGINDAKO  
SAGARDOA  
astelehenetan itxita


Tfn-fax: 943 36 67 10  
Aginaga auzoa, 20170 USURBIL  
info@aginagasagardotegia.com  
[www.aginagasagardotegia.com](http://www.aginagasagardotegia.com)



# SAIZAR

## Sagardotegia

[www.sidrassaizar.com](http://www.sidrassaizar.com)



943 37 39 95



**ORDUTEGIA:**

Asteazken eta ostegunak: 20:00-01:00

Ostirala: 13:30-18:00 / 20:00-01:00

Larunbata: 13:00-18:00 / 20:30-01:00

Igandea: 13:30-18:00

%100 bertako sagarra

Tel: **943 365 031**

Santuenea



Txotxetik sagardoa  
jarraitu usadioa!

# AIALDE BERRI

# URTARRILAREN 20AN IREKITA GAUDE

## Predamborrada Urbilen!

Urtarrilaren 14an, zatoz  
haurren danborradaz  
gozatzera Larramendi  
Ikastetxearen eskutik.



[BLOG](#) [f](#) [t](#) [@](#)



[urbil.es](http://urbil.es)